

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA-2022-EKAINA-440.ZENBAKIA

# KARKARA

ZENBAKI HONEKIN BATERA  
+ GUKA ALDIZKARIA



ZAHARTZE AKTIBOA

## SASOI BETEAN

**ANORGA TXIKI, S.L.**  
**KRISTALDEGIA**

Oria etorbidea, 4  
 LASARTE-ORIA

anorgatxiki@gmail.com  
 www.cristalergiaanorgatxiki.com  
 943-37 17 33 · 610 45 93 45

- Eraikin komertzialak
- Kristaldura bikoitza
- Segurtasun beirak
- Dutzako manparak eta ispiluak

Pelotari, 5 · ORIO  
 943-83 00 34  
 autolan13@hotmail.com



**AUTO - LAN C. B.**



**ARDORA**  
 arraindegia

Eusko Gudari, 4  
 © 943-09 28 17 ☎ 623 47 57 52  
 ardoraarraindegia@yahoo.com  
 ORIO

**arkaitz taberna**  
 orio

- EGUNEKO MENUA
- OGITARTEKOAK
- PINTXOAK
- PLATER KONBINATUAK
- KARTA

*Terniza ederrarekin giro ezin hobea*

abeslari kalea 6 · 943-83 16 57

**azkue**  
 karrozeriak

Ubegun industrialdea, 7  
 AIA-ORIO  
 943-83 51 86

**auto Azkue**

Olaskoegia z/g  
 AIA-ORIO  
 943-13 04 38

Carmen eta Txomin  
 ARRAINDEGIA



TXOMIN ARRAINDEGIA  
 Eusko Gudarien kalea, 44  
 943-83 27 47

CARMEN ARRAINDEGIA  
 Arizaga kalea  
 943-83 05 37

**fontana**  
 iturgintza

iturgintza · gasa · berogailuak



Zerbitzu teknikoa  
 24 ordu

- Komun eta sukaldeen erreforma
- Galdara eta termo elektrikoek instalazioa
- Ur-jarioak aurkitu eta konpondu
- Bainujontzia kendu eta dutxa jartzea
- Zoru erradiatzailea

Arrantzale kalea, 3 · ORIO  
 fontana-jul@hotmail.es  
 www.fontaneria-fontana.com  
 943-53 98 88 · 661 26 28 28

**IGLESIAS SARRAILAGILEAK**



iglesiascerrajeros@yahoo.es  
 www.iglesiascerrajeros.com  
 Erribera kalea, 14 · ORIO  
 637 72 33 08

- Ateak irekitzen ditugu
- Sarraila-zilindro aldaketak
- Ateak ixteko malgukien aldaketa
- Komunitateentzako zerbitzua

**24orduko zerbitzua**

**Joseba**  
 AROZTEGIA · CARPINTERIA



687 683 427  
 josebaarotza@gmail.com

- ATEAK
- ZOKALOAK
- ARMAIRUAK NEURRIRA
- LEIHOAK
- ESKAILERAK
- ARROZTEGIA OROKORREAN



# KARKARA 440

2022-EKAINA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:  
IÑIGO GAITON



## Aurkibidea

- |    |   |    |  |
|----|---|----|--|
| 5  | <b>Iritzia</b> Aitziber Arzallus<br><i>Bukaera bat</i>                  | 26 | <b>Oroimenaren kutxa</b> Iñaki Iturain<br><i>'Begizuri'-ren lehorreko arraun<br/>erronka</i>                                   |
| 6  | <b>Hitz tantak</b> Onintza Lete Arrieta<br><i>Mari Jose Iparragirre</i> | 31 | <b>Klik!</b> Iban Egiguren<br><i>Marka laga duen festa</i>   |
| 8  | <b>Izpiak eta hizkiak</b> Urtzi Oteiza<br><i>Azentzio Azoka, Aian</i>   | 36 | <b>Elkarrizketa</b> Iñigo Gaiton<br><i>Miriam Garcia: "Parte hartzea<br/>kualitatiboki indartzea da aurtengo<br/>helburua"</i> |
| 10 | <b>Gutunak</b>  | 41 | <b>Moila bazterretik</b> Egoitz<br>Dorronsoro Taboada<br><i>Sorginak</i>   |
| 13 | <b>Herrian galdezka</b><br>Nola gozatuko duzu udaz?                     | 42 | <b>Plazan bazan</b>  |
| 14 | <b>Erreportajea</b> Aitziber Arzallus<br><i>Sasoiak ez du adinik</i>    | 44 | <b>Zerbitzuak</b>  |
| 22 | <b>Akuilua hartuta</b> Orioko Gure Esku<br><i>Pirinioetako Bidea</i>    | 45 | <b>Agenda</b>  |
| 23 | <b>Nire honetan</b> Iñigo Gaiton<br><i>Paperaz</i>                      | 46 | <b>Hasi bertsotan</b> Rosi Lazkano   |
| 25 | <b>Ikasleak idazle</b> Lardizabal Eskola                                |    |  |

## KARKARA



TOKIKOM

### Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea  
Koop. Elk.  
Soreasu 1. 20730  
AZPEITIA  
943-83 15 27  
karkara@karkara.eus  
www.karkara.eus

### Erredaktoreburua

Aiora Larrariaga  
Solaberrieta

### Erredaktore taldea

Onintza Lete Arrieta  
Iñigo Gaiton  
Aitziber Arzallus  
**Diseinu arduraduna**  
Ane Azkue

### Publizitatea

Leire Martija  
**Zenbaki honetako  
kolaboratzaileak**  
Urtzi Oteiza  
Iñaki Iturain  
Iban Egiguren  
Egoitz Dorronsoro Taboada  
Saioa Perona

### Banatzaleak

Endika Ruiz (Orio)  
Manex Dorronsoro (Orio)  
Eli Irureta (Aia)

### Inprimategia

Antza Inprimategia  
(Lasarte-Oria)  
**Lege Gordailua:**  
SS-346/90  
**ISSN:** 1132-1105  
**Tirada:** 4.000 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



ORIO



AIAKO  
UDALA

PUBLIZITATEA



# KAIOA

 **kaioa\_denda**  
 **www.kaioa.es**

# Gabon

TABERNA

Eusko Gudarien kalea, 7  
943-83 06 09



%100 etxean egina  
PIZZERIA  
**KALETA**

Arrantzale kalea, 10 943-24 89 46



## GARMENDIA

Higiezin Agentzia  
Aholkularitza  
Aseguruak

943-83 44 66 · 688 75 59 48  
Ibai Ondo, 1 · ORIO  
info@egarmendia.com



# KATU HORIA

albaritaritza klinika

ESTROPALARZ, 10  
20510 ORIO  
tel. 943 11 66 99

Larrialdia: **668891129**

# ITZIAR

## KIROLAK

Eusko Gudarien kalea, 23  
ORIO  
943-83 31 03



# KORTABERRI

arotz lanak

Imanol Illarramendi  
Aia (Gipuzkoa)

kortaberri.arotza@hotmail.com 665 70 33 47



# Kolon Txiki

edaritegia · jatetxea

Herriko Enparantza 4  
ORIO  
Tel.: 943-83 00 44

# libe

dietetika  
elikadura aholkularitza

943-53 64 94  
697 23 86 56  
libegarmendia@gmail.com  
www.libegarmendia.com

Eusko gudariak, 35 · ORIO  
(sarrera Arrantzale kaletik)




Ordo elikatuz Bizi

# kutixi

## kafetegia

Aritzaga 9 · ORIO · 943-13 15 17



# LASTER DESATASCOS

- Libraketak
- Hobi septiko eta putzu beltzen garbiketa
- Uholdeetako uren hustuketa
- Teilatu hodian garbiketa
- Saneamendu sareen ikuskapena
- Puzkatutako hobien geolokalizazioa
- Ur jario atzematea
- ...

desatascos@desatascoslaster.com  
www.desatascos.com  
24 orduz 688 88 65 36 (Larrialdia)

Abaromendi 3, 20810 ORIO · Sagar Erreka 21-A, 20590 SORALUZE · 943-75 14 31 (bulegoa)

# Bukaera bat



AITZIBER ARZALLUS

**G**auzak hasi eta bukatu egiten dira. Bizitza bezala, bizitzan zeharrekoak. Oporrak, maitasun istorioak, ikasle garaiak, afariak, lan kontratuak, haserrealdiak, parrandak, bikote harremanak, lagun artekoak... Hasiara bat eta bukaera bat izaten dute, eta zenbat eta lehenago onartu, orduan eta hobeto.

Nire Orioko etapa ere bukatu da. Urriarekin iritsi nintzen, eta maiatzarekin noa. Zortzi hilabete, kilometro dezente eta telefonoko agendan zenbaki berri mordoxka. Ez unibertstatetik probetxuzko gauza askorik atera nuelako, baina gogoan dut behin irakasle batek nola esan zigun kazetari baten gauzarik baliotsuenetakoa bere telefono agenda izaten zela. Orduan ez nion zentzu handirik hartu baieztapen horri, baina orain hartzen diot. Pena azken hilabeteotan zerrendara gehitu ditudan zenbaki horietako batzuei aurpegirik jarri gabe noalako. Baia Egun bezalako beste bi beharko nituzke denak aurrez aurre ezagutu ahal izateko. Oraingo horrela beharko du, baina batek daki etorkizunak zer ekarriko digun.

Lanari dagokionez ere, hilabete interesgarriak izan dira, herriko agenda erdi hutsa egotetik gainezka egotera pasatu den hilabeteak. Eta esan beharra daukat ez dudala ezagutu hemen adina bilera ireki egiten den herririk, ezta hemengoak bezain udabaltzar interesgarriak egiten denik ere. Ikusi dut Gaztetxeko lagunak ez daudela geldirik egoteko, ezta jubilatutako etxean egoteko ere, irteera ez bada gimnasia, zereginik ez zaiela falta. Hain zuzen ere, zahartze aktiboa gai hartuta, kiroldegira ia egunero joateko ohitura duten 80 urtetik gorako bost herritarrekin egon naiz aldizkari honetako erreportaje nagusirako. A zer sasoia batzuen! Hasi beharko dugu zer baitetan...

Honaino iritsita, eskerrak ematea besterik ez zait gelditzen. Etorri aurretik banuen nahikoa kezka Orio gutxi ezagutzen nuelako, eta oriotarrak lau edo bost besterik ez. Baina iritsi artekoa izan zen; gustura eta eroso sentitu naiz, eta horrek asko balio du. Eskerrik asko denei, telefonoz zein aurrez aurre ezagutu zaituztedanei, erraz jarri dizkidazuelako gauzak. Ondo bizi! ■■■

**ESKERRIK ASKO DENEI,  
TELEFONOZ ZEIN  
AURREZ AURRE  
EZAGATU  
ZAITUZTEDANEI**

**IBER glass** 

Kristalen konponketa eta aldaketa  
Eguzki lamina ilunak  
Errotulazioa  
Seguruekin kontzertatuta  
Txanda eskatzeko: 689 34 11 01



Estropalari, 12

**LAIARAN**

Kuadrilentzako  
kamisetak, zapiak.....

# Mari Jose Iparragirre

**TESTUA ETA ARGAZKIA:** ONINTZA LETE ARRIETA

Gatzik eta piperrik ez zaio falta Mari Jose Iparragirreri (Orio, 1954), ez behintzat bere-berea duen arte munduaz hitz egiterakoan. Margotzea eta eskulanak egitea ditu afizio, eta urte askoan ibili izan da bai eskolak jasotzen, bai ematen Orioko haurrei. Alde Zaharreko Iturbide kalean duen lokalean aritu da datozen aste eta hilabeteetarako dituen asmoez hizketan.

## **Erakusketa zabalduko duzu aurki.**

Hala da. Aspaldidanik nabil ideiarri bueltaka, eta azkenean zirt-zart, erabaki dut jartzea. Ekainaren 16tik hil amaierara arte zabalduko dut, Aritzaga kalean, ingeles akademia egon den tokian, jabeek utzi egin didate-eta lokala. Nire asmoa da urte hauetan egindako lanak erakustea. Gela batean, esaterako, Hondarribiko Inauterietako desfilerako egindako Aladino pertsonaia eta haren ingurukoak jarriko ditut. Gabonetako erakusleho lehiaketetarako ere askotan egin izan ditut panpinak eta osagarriak gai zehatzen inguruan, eta horiek ere jarriko ditut.

## **Zuretzat harribitxiak diren bi lan ere jarriko dituzu.**

Bai. Bat da eskulan tailerrean egindako lehendabiziko panpina, eta bestea, Xixario pareko eraikinaren erreplika, garai batean arrantzale sareak gordetzen zituzten eraikinarena. Tira, zatika egin dut eta iritzira, benetako tamainak kontuan hartu gabe. Dena kartoiarekin egin dut. Asko gustatzen zaidan eraikina da, eta jakin nuenean bota egin behar zutela, a zer tripako mina! Ez zait batere ondo iruditzen. Mutiozabal berreskuratu duten bezala egin behar lukete eraikin horrekin ere, eta erabili zerbaitetarako.

## **Erakusketa amaitu ondorenerako ere topatu diozu bizitokia obra horri...**

Bai. Gustatuko litzaidake Turismo Bulegoan ikusgai gelditzea. Plazara ekarri dute bulegoa, eta lokala oso soila dago, eta uste dut ederki geldituko litzatekeela hortxe. Orain arte ez nion inori kontatu, eta nahi badute behintzat, hantxe jartzeko geldituko da.

## **Nondik datorkizu eskulanetarako afizioa?**

Gogoan dut gaztetan lagunak tabernara joaten zirela eta ni, berriz, etxeko ganbarara. Orduan ez zegoen gaur adina material, eta aurkitzen nituen gauzeekin moldatzen nintzen. Gero margotzen hasi nintzen, hasieran neure kabuz, eta gero irakasleekin. Trasteak hartu eta presaka ibiltzen nintzen trenean aurrera eta atzera, aurrena Donostiara, gero Iñigo Ormazabal zarauztarrarengana, eta ondoren Hondarribiko Javier Sagarzazurengana. Ordu haiek zerua ziren niretzat, hura gozamina! Aurrena sartu eta azkena ateratzen nintzen beti.

## **Erakusketak jarritakoa zara, eta baita sariren bat jasotakoa ere.**

Gabonetan erakusleho lehiaketan parte hartu izan nuen urte batzuetan, bai, baina inoiz saririk lortu ez. Kurioso da, hemen jarritako batek Donostian hirugarren saria lortu zuelako; gamelu handi bat egin nuen, eta tripa barruan Jaiotza ipini nuen. Oso polita gelditu zen.

## **Oriotar petoa zara, baina Hondarribiarekin lotura handia daukazu.**

Hala da, bai. Sagarzazurekin margotzen ibili nintzenean, herri ederra zela iritzita, bertan erosi genuen bigarren etxebizitza. Arte galeria oso ona ere badago, eta sarri-sarri joan naiz beti hara; erakusketa aldatzen duten bakoitzean. Gainera, Kale Nagusian denda-tailer zoragarria dago. Sartu nintzen aurreneko aldiak konturatu nintzen hura zela nik nahi nuena.

## **Eskulanak, alegia.**

Bai, eskulanak. Andre-gizon batzuen denda da; gizona Basterretxea eskulturgilearen semea da, eta jator-jatorrak dira biak. Haiekin hasi nintzen ikasten.

## **Azkenean, zeu irakasle.**

Ama batek eskatu zidan margotzen irakasteko bere seme-alabei, eta halaxe, ohartzeko lokala umez bete zitzaidan. Utzita nago, baina gurasoek galdetu egiten didate oraindik, eta ez dakit ez ote naizen berriz hasiko erakusten, umezalea izan bainaiz beti. Bilobak koskortu zaizkit, eta denbora badaukat halako zerbait egiteko... ■■■■



## Asentzio Azoka, Aian

**ARGAZKIA:** URTZI OTEIZA

**TESTUA:** AIORA LARRAÑAGA SOLABERRIETA

Giro ederra izan zen maiatzaren 22an Aian, Asentzio Azokan. Goizean goizetik festa giroa nabari zen herrigunean, eta aiarrez gain asko izan ziren bertaratu ziren eskualdeko herritarrak ere. Familian goiz pasa egitera joan ginen batzuk, eta etxeko txikiak harrিতuta geratu ziren bertan ikusgai zeuden animaliekin. Lagun zaharrak ikusteko ere aprobe txatu zuten hitzordua adineko askok; mezetara joan, hamaiketako egin eta tertulian aritzeko.

Herriko plazan geundela adineko gizon bat eseri zitzaigun ondoan; haurrekin txantxetan hasi zen jolasean, eta horrelaxe jakin genuen urte luzez gure aitarekin Aizarnazabalen lan egindakoa zela; gure aitona Joxemanuel aizarnazabaldarra ere ezagutzen zuen hark. Hori bai kasualitatea! Zeinen txikia den eskualdea! ■■■







## Zuhaitzak ebakitzen

**LUIS CISNEROS PEREZ**

ORIO

Emozionatu egiten naiz horrelako albisteak irakurtzen ditudanean: "Errepide bat desbideratu dute zuhaitz bat errespetatzeagatik". Hori da ekologismoa. Ezin dugu gauza bera esan itsasoko ugaztunak hiltzen direnean, baina gaur zuhaitzez idazten ari gara. Askotan irakurri izan dugu hiriburuetako birrikak direla zuhaitzak, eta minbizitik babesten gaituztela. Hori dela eta, zinegotziek, politikariek eta teknikariek zuhaitzak landatzeari ekiten diote herri eta hirietan. Ondorioz, bizilagunen leihoak tapatuta geratzen dira, hoditeriak bixatuta eta aparkalekuak hartuta.

Bigarren fasea: batzuek landatu zituzten zuhaitzak moztu behar izaten dira.

Hori gertatu zen Orion pasa den urtean 40 zentimetroko diametroko enborra zuen astigar batekin, baita orain dela aste gutxi Eusko Gudari kalean ebaki zituzten hiru zuhaitzekin ere.

Intenbidea: landatu aurretik pentsatu, eta moztu aurretik birlandatu.

Esango dute garestia dela eta kutxa publikoa ez dagoela horretarako.

Aipatu dudana Orioko kasua da, baina gainontzeko herrietan ere gauza bera gertatzen da. Horregatik, gogoan izan behar



Eusko Gudari kaleko zuhaitza. L. CISNEROS

da zuhaitzak parkeetan eta eremu zabaletarako direla. Beste zenbait zuhaitz mota ere landatu daitezke, baina horretarako hirigintza plana eduki behar da.

### **Eskerrik asko, Orio!**

#### **ORIOKO UDALA**

Asteburuan ospatu dugun Balearen Eguna arnas berria eman dio herriari. Poza, maitasuna, gozamina, elkartasuna... Halako berotasuna sentitu gabe geunden aspaldian, eta behar-beharrezko genuen indarra itzuli digu guztioi.

## **BALEAREN EGUNAK ARNAS BERRIA EMAN DIO HERRIARI. POZA, MAITASUNA, ELKARTASUNA...**

Jarrera ezegoki batzuetatik harago, elkarlanean prestatutako eguna borobila izan da, eta horrekin geratzen gara: erakutsitako herrigintza eredu apartarekin.

Ospakizun egunetan elkartasun sareak josten ditugu, eta ontzi berean arraun egiten dugula gogoratu. Gure nortasuna aldarrikatzeko jaia izan da, berriz ere, Balearen Eguna, eta eskerrak eman nahi dizkizuegu era batera nahiz bestera parte hartu duzuen herritar guztiei. Indarberritu egin gaituzue!

### **Zaharren Babeslekua irteeraz irteera**

#### **ZAHARREN BABESLEKUA**

ORIO

Izurritea igarota, Zaharren Babeslekuan berreskuratu dugu betiko martxa eta ekin diogu irteerak antolatzeari. Ekainaren 22an, esaterako, Santoñara (Kantabria, Espainia) egingo dugu bisita. Egun osoko bidaia izango da, eta bertan parte hartu nahi duten bazkideek txartelak salgai izango dituzte hilaren 14an, 16:30etik 18:00etara, Zaharren Babeslekuan bertan.

Horrez gain, irailerako bidaia antolatu dugu Cadizko (Andaluzia, Espainia) Herri Zurietara. Irailaren 12tik 20ra bitartean egingo dugu bidaia, eta hainbat herri ezagutuko ditugu: Cadiz, Jerez, Grazalema, Ubrique, Arcos de la Frontera, Vejer, Conil, Puerto de Santa

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). **KARKARAK** eskubidea du gutuna laburtzeko. **KARKARAK** ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina beti, **guk** egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, **KARKARAK** esan egingo dio.

Argitaratu nahi diren gutunak **KARKARA**ra bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: [karkara@karkara.eus](mailto:karkara@karkara.eus) edo erredakziora eskura ekarri -Orioko edo Alako Kultur Etxean- edo postaz bidali. Kultur etxea, 20810 Orio

Maria, Sanlucar de Barrameda eta Chipiona. Paraje zoragarriak ezagutzeaz gain, beste hainbat jarduera ere egingo ditugu: itsas ibilaldia Cadizko badian barrena, Tio Pepe upategira bisita eta Zaldi Artearen Andaluziako Errege Eskolan erakustaldia. Horrez gain, bertako gastronomia ezagutzeko aukera paregabea ere izango dugu hainbat jatetxetan. Bidaiaaren prezioa 885 eurokoa izango da, eta Zaharren Babeslekuko bazkideek 80 euroko dirulaguntza izango dute.

Bidaian parte hartu nahi dutenek 626-47 14 23 telefono zenbakira deitu behar dute izena emateko.

## Bizikidetz aparkatzerakoan

### HERRITAR BAT

ORIO

Ez nuke nahi inor seinalatua sentitzerik, ezta inor epaitzerik ere, baina kexa bat partekatu nahi dut herritarrekin. Denok dakigu gero eta arazo gehiago daudela herrian aparkatzeko, herrigunean behintzat. Eta denok ikusi dugu motoentzat aparkaleku berriak sortu dituela

## AUTOA DUGUNOI EZ ZAIGU BURUTIK PASATZEN GAIZKI APARKATUTA UZTEA GURE IBILGAILUA

udalak azken urteetan. Beharrezkoak izango ziren, eta beraz, ondo egina.

Horregatik, uste dut autoentzako aparkalekuek autoentzako izan behar dutela. Eta amorragarria egiten zait motoa aparkatuta ikustea eguna joan eta eguna etorri Palota kale aurrean, autoentzako aparkalekuan. Ez dakit motoak espaloian utzi daitezkeen ala ez. Baina badakit hantxe inguruan gutxienez bi toki daudela motoentzat propio. Horretarako kendu ere egin dela autoentzako aparkalekuren bat.

Bizikidetzaren alde gaudela uste dut herritar denok, eta bizikidetzaren barruan sartzen da, eta bestekiko errespetuaren barruan, motoa motoentzako aparkalekuan uztea. Distantzia arazorik ere ez dago, kale bat atzerago eta aurrerago daudelako motoentzat gordetako tokiak.

Erosotasuna denoi gustatzen zaigu, eta etxe aurrean aparkatzea ere bai (ez dakit non biziko den moto horren jabea, baina pentsatzen dut hor ingurukoa izango dela motoa hor utzi badu, autoentzako tokian), baina autoa dugunoi ez zaigu burutik pasatzen gaizki aparkatuta uztea gure ibilgailua, erosotasunagatik.

Noski, oker egon naiteke, beharbada udal ordenantzak esango du aparkaleku normaletan ere aparkatu daitezkeela motoak, eta hori horrela bada, eskertuko nuke

udalak edo udaltzaingoak jakinaraztea hori publikoki, bide honetatik bertatik edo.

Fijatuko naiz hurrengo egunetan ea motoaren jabeak jarrera aldatzen duen eta motoa eramaten duen aparkaleku egokira. Hala bada, alde aurretik eskerrak eman nahi nizkioke, bizikidetzaren alde egitearren. ■■■

## JAIOBERRIAK


- **Marko Aldalur Atorrasagasti.** Orion, maiatzaren 11n.
- **Oihan Iparragirre Aristigieta.** Orion, maiatzaren 11n.
- **Maren Eizagirre Mitxelena.** Orion, maiatzaren 13an.

## HILDAKOAK

- **Markox Orbegoza Lizaso.** Orion, maiatzaren 1ean. 86 urte.
- **Jose Mari Makazaga Otamendi.** Orion, maiatzaren 4an. 76 urte.
- **Lourdes Mayoral Lizarbe.** Orion, maiatzaren 6an. 84 urte.
- **Joseba Goiburu Manzisidor.** Orion, maiatzaren 6an. 66 urte.
- **Jose Ignacio Etxeberria Iradorza.** Orion, maiatzaren 17an. 90 urte.
- **Jose Mari Lertxundi Zuloaga.** Aian, maiatzaren 11n. 89 urte.
- **Juan Iribar Arruti.** Aian, maiatzaren 14an. 80 urte.

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). **KARKARAK** eskubidea du gutuna laburtzeko. **KARKARAK** ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, **KARKARAK** esan egingo dio.

Argitaratu nahi diren gutunak **KARKARA**ra bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: [karkara@karkara.eus](mailto:karkara@karkara.eus) edo erredakziora eskura ekarri -Orioko edo Aiako Kultur Etxean- edo postaz bidali. Kultur etxea, 20810 Orio



**Karkara**  
.eus

# Nola gozatuko duzu udaz?



## AINARA BRAVO

Lan egitea eta udaz gozatzea da nire asmoa datozen hilabeteetarako. Lanean jardungo dut herriko jatetxe batean, baina ondo pasatzeko eta parranda egiteko ere aprobetxatu nahi nuke. Koronabirusaren aurreko festak bizi nahi ditugu berriz ere, eta kuadrillan herriz herri ibiltzeko gogoz gaude. Izan ere, 2020an izurritea iritsi zenean, 18 urte genituen, eta artean gidabaimenik ez genuenez, ez genuen batetik bestera ibiltzeko askatasunik; beti geunden garraio publikoaren menpe nora joan erabakitzeko. Horregatik, aurtengo uda desberdina izatea espero dut, askeagoa. Hori bai, nik neuk etxean bizitakoagatik edo, koronabirusaren mamua oraindik nahiko presente dut eta errespetua ere ematen dit egoera berriak.



## ANAÏDA EGIBAR

Uda honetan, aspalditik buruan genuen bidaia handia egingo dugu. Hasiera batean, bidaia hau 2020ko udaberrian egitekoak ginen, baina koronabirusak gure plana egun batetik bestera zapuztu zuen. 2020ko martxoaren 19an ginen hegazkina hartzekoak, eta egun batzuk lehenago itxialdia ezarri zuten; maletak ere prest genituen. Orain, normaltasuna bueltatu dela dirudi, eta uda aprobetxatuko dugu ume eta guzti hilabeteko bidaia egiteko, motxila bizkarrean hartuta. Hasiera batean, gure asmoa zen hirugarren semea izan aurretik egitea bidaia, bi zaharrenek horretarako adin egokia zutela iruditzen baitzitzaigun, baina luze jo du izurriteak, eta tartean semetxoa izan dugu. Beraz, oraingoan bostok joango gara bidaia.



## TXOMIN IRIBAR

Ekaiaren 22an egingo dugu Zaharren Babeslekuarekin azken irteera Santoña aldera, eta udan lasai ibiliko naiz. Eguraldi ona aprobetxatzea gustatzen zait; goizean bueltatxoa ematen dut lagunekin eta arratsaldean hondartza aldera joaten naiz. Horrez gain, estropadak ere asko gustatzen zaizkit; normalean telebistaz ikusten ditut, baina hemen inguruan badira, animatzen naiz zuzenean ikustera ere. Aurten, gainera, biloba arraun elkartean aritzen dela aprobetxatuz, uztailean Katalunia aldera joateko asmoa ere badut familiarekin, estropada jokatuko baitu. Irailean, berriz, aspaldiko partez, bederatzi eguneko bidaia egingo dugu Zaharren Babeslekuarekin, eta irrikaz gaude, izurritea hasi zenetik ez dugulako horrelako bidaiarik egin. ■■■



# Sasoiak ez du adinik

Zahartzaroaren ajeak arintzeko, ez dago jarduera fisikoa egitea bezalako erremediorik, eta Karela kiroldegia horretarako leku aproposa da, hirugarren adinekoen neurrira egindako saioak eskaintzen dituztelako han. Badira ia egunero joateko ohitura duten adinekoak, baina gutxi dira. Horietako batzuekin egon da KARKARA, 80 urtetik gorako bost herritarrekin. Lotsak alde batera utzi, eta animatzeko deia egin diete adineko denei. Testua: **Aitziber Arzallus**. Argazkiak: **Iñigo Gaiton**.



**G**ipuzkoarren bizi itxaropena nabarmen luzatu da azken lau hamarkadetan. Eustat Euskal Estatistika Erakundeak joan den abenduan kaleratutako datuen arabera, gizonek ia hamar urte irabazi dituzte: duela 40 urte, batez beste 71,9 urterekin hiltzen ziren, eta orain, 81,1 urte harrapatzen dituzte. Emakumeak, berriz, 78,9 urtez bizi ziren lehen; eta orain, batez beste, 86,4 urte betetzen dituzte.

Ez dira nolanhiko zenbakiak, are gehiago jakinda orain dela gutxira arte 80 urtera iriste hutsa lorpen bat zela. Baina gauza bat da zortzi hamarkaden langa hori gainditzea, eta bestea da nola, alegia, zein osasun egoeratan.

Horretan, noski, faktore askok dute eragina: genetikoek handia, baina baita bakoitzak eraman duen bizimoduak eta izan dituen ohiturek ere; hala nola, elikadurak, atsedanak, higieneak, jarduera fisikorako joerak... Hala ere, sekula ez da berandu ohitura osasungarriek ekiteko, "ezta 80 urteak beteta gero ere", esan du Luis Mari Garikano Karela kiroldegiko arduradunak, eta badaki zerbait horretaz.

"Urteetan aurrera goazen heinean, gure gaitasun fisikoak pixkanaka murriztuz joaten dira. Giharra galtzen dugu, hezurren dentsitatea ere bai, eta ondorioz, indarra, koordinazioa eta malgutasuna ere galdu egiten ditugu", hasi da. "Hori guztiz saihestea ezinezkoa da, baina jarduera fisikoarekin lortzen dena da funtzionalitateen galera horri aurre egitea". Haren hitzetan, jarduera

Adinekoentzako gimnasia saioa, Karela kiroldegian.

Ezkerrean, Martina Arevalillo eskola umeen aurrean bere sasoiaren erakustaldia egiten.

## "Gerria eta belaunak mugitzeak on egiten dit"

**ANTONIO ADURIZ**

Antonio Adurizek (Orio, 1934) 88 urte ditu, eta ohikoetako bat da Orioko kiroldegian.

Makuluena laguntza behar du oinez ibiltzeko, baina hori ez du ez oztopo eta ez aitzakia.

### **Zenbatean behin joaten zara kiroldegira eta zer egiten duzu han?**

Bi egunetik behin joaten naiz, ergometroan ibiltzera. 25 minutu egiten ditut, dutxatu eta etxera. Beheko gimnasioan dagoen ergometroa niretzat gordeta daukate, gora igotzerik ez daukadalako. Lehen egunero etortzen nintzen, eta egun batean ergometroan ibili eta bestean igeri egiten nuen,



baina biak gehiegi ziren, eta igeria utzi nuen.

### **Noiz hasi zinen etortzen?**

Urte asko dira, baina zehatz esateko moduan ez naiz akordatzen.

### **Betidanik izan al zara kirolaria?**

Bai, beti egin izan dut zeozer. Oso gaztea nintzela, arranean hasi nintzen; gero, 24 urtetik 28ra, itsasora joan nintzen lanera, eta utzi egin behar izan nuen; baina, handik bueltan, berriz heldu nion, eta lehiatzen hasi nintzen. Urte batzuk egin nituen, eta gero utzi egin nuen, baina kirola egiten jarraitu nuen.

### **Kiroldegira joango ez bazina...**

Falta handia antzemango nuke. Gorputzari mugimendu pixka bat emateak, gerriak eta belaunak mugitzeak, onura handia egiten dit. Gainera, ez da kirola egitea bakarrik. Joan bakarrik egiten naiz, baina beti izaten dira hizketarako lagunak inguruan, eta gustura aritzen gara arraun kontuan eta pilota kontuan eta.

## "Egunero joaten gara, igandeetan izan ezik"

**MARTINA AREVALILLO ETA ANTONIO CARRETERO**



Martina Arevalillo (Cabezuela, Espainia, 1939) eta Antonio Carretero (Cabezuela, Espainia, 1936) senar-emazteek 80 urteak beteta dituzte, eta azken hoge

urteotan kiroldegiko erabiltzailerik finenetakoak izan dira. Arevalillok erantzun ditu galderak.

### **Zenbatean behin joaten zarete kiroldegira?**

Ondo bagara, igandeetan izan ezik, beste egun guztietan; eta igandeetan ez gara joaten, mezetara joan behar izaten dugulako.

### **Zer kirol egiten duzue?**

Nik igeri egiten dut, eta Antonio igerileku txikian oinez ibiltzen da. Ordubate inguru ibiltzen gara egunero.

### **Noiz hasi zineten?**

Kiroldegi berria egin zutenean, duela hoge bat urte edo.

### **Ba al zenekiten igerian?**

Zera jakingo genuen! Segoviakoak gara, lehorrekoak eta nekazarien seme-alabak. Hona etorri aurretik, ia sekula uretan sartu gabeak ginen. Hemen ikasi genuen igerian.

### **Beste kirolik egin izan al duzue?**

Gaztetan gure kirolak izaten ziren segan aritzea eta garia jotzea. Eskolan noiz edo noiz korrika egin izan genuen, baina besterik ez.

### **Zer ematen dizue kirola egiteak?**

Osasune oso ondo aurkitzen gara biok, eta pentsatu nahi dugu ohitura osasungarriak izateak izango duela zerikusirik. Egin izan ez bagenu, ez dakigu nola egongo ginatkeen orain.



## "50 luze egin arte ez nintzen gelditzen"

**TEODORA GARCIA**

Teodora Garciak (Cabezuela, Espainia, 1941) kiroldegi berria eraiki zutenean ekin zion jarduera fisikoari. Ordurako bazituen 60 urte.

### **Nolatan hasi ziren kiroldegira joaten?**

Lagun batek eraman ninduen, ez oso konbentzituta, baina nik joaten jarraitzen dut, eta bera ez da gehiago azaldu. Dena dela, beti egongo naiz eskertuta, beragatik izan ez balitz agian sekula ez nintzelako joango, eta gauza pila bat galduko nituelako. Adibidez, ez nukeen igerian jakingo; pena bat, zenbat gusatzen zaidan jakinda.

### **Noiz ikasi zenuen igerian?**

Gogoan dut 60 urte beteta nituela lehendabiziko ikastaroa egin nuenean. A zer pazientzia izan zuena irakasleak!

### **Harrezkero zenbat luze egin ote dituzu?**

Milaka. Astelehenetik ostiralera egunero joaten naiz ordubetez, eta lehen, 50 luze egin arte ez nintzen gelditzen. Azkenaldian igeri gutxiago egiten dut, pare bat eroriko izan eta besoak izorratuta eduki ditudalako. Igerileku txikian ibiltzen naiz orain, erosoago sentitzen bainaiz.

### **Beste kirolik egin al duzu inoiz?**



60 urtera arte kirolik ez, baina lan asko. Gero, urte askoan, igerian ibili izan naiz neure erara, eta orain, asteazkenetan, igerilekuan luzaketak egiteko saioetara joaten naiz, besoetarako oso ondo etortzen zaizkidalako ariketa horiek. Horretaz aparte, asko ibiltzen naiz; badira egunak oinez hemezortzi kilometro egiten ditudanak.

## "Neu naiz taldeko gizon bakarra"

**MIGUEL NACENTA**

Miguel Nacenta (Huesca, Espainia, 1940) taldeko jardueren zalea da. Zortzi urte daramatza Hirugarren Adinekoentzako Gimnasia saioak hartzen.

### **Nolakoak dira saio horiek?**

Astean bitan elkartzen gara, hamar bat lagun, eta saioak



barruan egiten ditugu, irakasle baten laguntzarekin. Oreka, koordinazioa, indarra eta abar lantzeko ariketak egiten ditugu. Gaur, adibidez, pisuekin ariketak egin ditugu, giharrak landu eta indartzeko, eta lurrean ariketa batzuk ere egin ditugu. Neu naiz taldeko zaharrena, eta gizon bakarra.

### **Besterik egiten al duzu?**

Bai, astean hirutan hondartzara aldera ibiltzera joaten gara taldean, monitore batekin. Beraz, astelehenetik ostiralera, egunero egiten dut zerbait. Lehen igerian ere ibiltzen nintzen, baina dena gehiegi zen, eta utzi egin nuen.

### **Beti izan al zara kirolaria?**

Gaztetan ez nuen kirolik egiten, gerora hasi nintzen, baina gaur egun ez dakit asmatuko nukeen ezer egin gabe bizitzen. Orain jarduera fisikoa errutina bat da niretzat, eta fisikoki ez ezik, bururako ere on egiten dit. Talde giro jatorra daukagu, eta oso ondo pasatzen dugu. Egia da kiroldegitik etxera neka-neka eginda iristen naizela, baina atsedean pixka bat hartu, bazkaldu, eta atzera berria bezala sentitzen naiz.

### **Zertan antzematen dituzu jarduera fisikoa egitearen onurak?**

Malgutasunean, orekan, koordinazioan, indarrean... denean. Badakit ezer egingo ez banu askoz okerrago egingo nintzatekeela.



Luis Mari Garikano, Karela kiroldegiko arduraduna .

fisikoak balio dezake arazoei aurrea hartzeko edo prebentzio gisa, eta baita galdutakoa berreskuratzeko edo tratamendu bezala ere.

"Zientifikoki frogatuta eta baieztatuta dago, jarduera fisikoari dagokionez, bizitza aktiboa izateak funtzionalitateen galera hori hogeitaz urtez ere atzeratu dezakeela".

Lortu nahi denaren arabera, ariketa batzuk edo besteak egitea komeni izaten dela kontatu du Garikanok.

"Adibidez, inpaktuko ariketak eginez, giharrak eta hezurak gogortzen dira, eta horrek, oreka hobetzen, erorketak saihesten eta hezur hausturak gutxitzen laguntzen du".

Gorputz jarrera edo postura egokiek duten garrantzia ere aipatu du. "Ariketak

egiterakoan, ondo egiten badira

behintzat, gorputza postura batzuetara ohitzen da, eta gero horiek oso baliagarriak eta lagungarriak izan daitezke eguneroko edozein jardueretan. Denean antzematen da aldea, baita erorketak egiterakoan edo etxeko lanak egiterakoan ere: errazago garraiatuko dituzte erosketa poltsak, errazago iritsiko dira armairuaren goiko apalera...".

### **Norbere erara edo taldean**

Orioko kiroldegian ariketa fisikoa egiteko aukera ugari dituzte adineko herritarrek, baina, nolabait azaltzeko, bi multzotan bana daitezke jarduera horiek: batetik, norbere erara egin ditzaketen jarduerak daude; eta bestetik, jarduera gidatuak deiturikoak, taldean eta irakasle baten laguntzarekin egiten dituztenak.

Kiroldegiko arduradunaren hitzetan, badira beren kasa joan ohi diren adinekoak. "Beraien ohiturak hartuta dauzkate, eta beti egin ohi dute gauza bera: batzuek igeri, besteek ergometroa, oinez ibili...". Taldekoei dagokionez, berriz, uneotan bi jarduera dituzte martxan: Aktibatu eta Hirugarren Adinekoentzako Gimnasia. "Aktibatu litzateke jarduera aerobikoa. Monitore baten laguntzarekin, hondartza aldera pasieran joaten dira astean hirutan. Gimnasia, berriz, gehiago dago bideratua giharrak-eta lantzerak. Astean bitan izaten dira saioak, kiroldegian bertan".

65 urtetik gorakoek eman dezakete izena horietan, eta egun, hamar-hamabi lagun ibiltzen dira jarduera horietako bakoitzean. Eider Laskibarrek ederki ezagutzen ditu guztiak ere, bera baita irakasleetako bat. Bi jarduerak gidatu izan ditu, baina, azkenaldian,

gimnasia saioez arduratzen da bera, eta beste lankide batek du Aktibatu saioen ardura.

"Gimnasia saioetara datozen gazteenek 65 urte inguru izango dituzte, eta zaharrena 80 urteren bueltan ibiliko da. Duela bizpahiru urte, hemezortzi lagun ere ibili izan ziren, baina pandemiak kopuru hori murriztu egin du, eta orain, hamar bat izango dira. Hori bai, etortzen direnak oso gustura ibiltzen dira eta oso fin etortzen dira, ia hutsik egin gabe; lagatzen badute, ezina sortu zaielako izaten da".

#### Taldean jardutearen onurak

Gidatutako saioetara joateak onura asko dituela nabarmendu du Laskibarrek, nola fisikoak, hala psikologikoak. "Hilabete batzuren buruan emaitzak ikusten hasten dira, fisikoki hobeto sentitzen dira, eta horrek motibatu egiten ditu. Denean antzematen dute aldea; koordinazio eta oreka hobea dituztela, indar gehiago, malgutasun handiagoa... Baina ez hori bakarrik: saioek balio izaten diete jendea ezagutzeko eta harreman berriak egiteko. Hori oso aberasgarria da beraientzat, asko betetzen ditu, badirelako bakarrik bizi direnak edo denbora asko bakarrik pasatzen dutenak. Denak herrikoak izaten dira, gehienak bistaz ezagutzen dute elkar, baina hemen lagun egiten dira, tarteka kafetxo bat hartzeko geratzeko moduan".

Horixe nabarmendu du Garikanok ere. "Oso giro ona sortzen da saioetan, eta denborarekin, talde bateko kide direla sentitzen dute; hori oso polita da, eta asko eskertzen dute. Ariketa fisikoa egiteko asmoarekin hasten dira, eta egiten dute, baina azkenean, ariketa egitea bigarren plano batean gelditzen da, horren inguruan sortzen diren beste gauzek balio handiagoa hartzen dutelako".

Joateko ohitura dutenak gustura ibiltzen dira beraz, baina ohitura hori hartzea kostatu egiten dela aitortu dute biek ala biek. Garikanoren arabera, "sekula kirolik egin ez duenari edo sekula kiroldegira etorri ez denari ikaragarri kostatzen zaio lehen pauso hori ematea". Laskibarrek uste du "lotsa" izan daitekeela arrazoi nagusia; "lotsa, ausardia falta eta ez daudela ohituta talde dinamiketara eta irakasle baten aginduetara ibiltzera". Gainera, ziurtatu du gizonei askoz gehiago kostatzen zaiela emakumeei baino, "eta horren erakusgarri da jarduera gidatuetara datozen ia denak emakumeak direla: bat ezik beste guztiak".

Baina Garikanok mezu bat helarazi nahi die kiroldegira joateko gogoa duten baina ausartzen ez diren horiei guztiei:



Eider Laskibar, Karela kiroldegiko irakaslea. Berak gidatzen ditu adinekoentzako gimnasia saioak.

**LUIS MARI GARIKANO:  
"SEKULA EZ DA  
BERANDU, ETA EGITEN  
DUTENA BETI IZANGO  
DA BERAIEI ONERAKO"**

**EIDER LASKIBAR:  
"SAIOETAN, ARIKETA  
FISIKOAZ GAIN,  
HARREMAN BERRIAK  
ERE EGITEN DITUZTE"**

# "Boluntarioak behar ditugu"

CARLOS RODRIGUEZ-SIERRA EKINTZAILEA

Duela aste batzuk, Carlos Rodriguez-Sierra oriotarrak hirugarren adinekoentzako Trak.Silver programa aurkeztu zuen Salatxo aretoan. Zahartzaro aktiboa sustatzeko programa bat da, eta boluntario bila dabilta. Rodriguez-Sierrak berak azaldu ditu egitasmoaren nondik norakoak.

## Zer da Trak.Silver?

Trak.Silver da ariketa fisikoaren bidez zahartzaro aktibo eta osasungarria bultzatzeko programa bat. Fisioterapia saioak eta ariketa fisiko edo terapeutikoa uztartzen ditu, eta helburua da adinekoen egoera fisikoa eta kognitiboa hobetzea. Mendekotasun egoeran dauden edo mendekotasun egoeran erortzeko arriskuan dauden adinekoei zuzenduta dago.

## Nola gauzatuko litzateke hori?

Trak.Silver programaren oinarrian Trak teknologia dago, osasun arloko profesionali zuzendutako software edo erreminta bat. Horren bidez, fisioterapeutek ariketa fisikoaren errutinak sor ditzakete, eta pazienteari bidali. Software hori gai da pazientearen mugimenduak identifikatzeko eta pazienteari esateko ariketa jakin bat ondo egiten ari den edo ez. Aldi berean, beste hainbat datu ere jasotzen ditu: pazienteak mugimendu bakoitza zenbat aldiz egin duen, mugimendu bat

zenbateko angeluarekin egin duen eta abar. Esan liteke Instagrameko fitroen antzerako teknologia erabiltzen duela. Filtro horiek, gezurretako betaurreko batzuek aurrean dutenaren aurpegiera detektatzen duten bezala, gure teknologiak pazientearen gorpuzkera detektatzen du. Pazienteak nahikoa izango luke eskuko telefonoko edo ordenagailuko kamera piztuta izatea.

## Pazientearen jarraipena nork egiten du, makina batek edo profesional batek?

Teknologia gai da pazienteari esateko mugimendu bat gaizki egiten ari dela eta erakusteko nola egin behar duen ondo, baina pazientearen balorazioa eta jarraipena beti hezur-haragizko profesionalak egiten dute.

## Programan parte hartuko duen jendearen bila zabilzate.

Hala da, bai. Guk adineko jendea behar dugu, eta nik uste beraientzat ere oso interesgarria izan daitekeela parte hartzea. Izan ere, fisioterapeuta bat etxera joango zaie, beren beharretara egokitutako errutina bat diseinatu die, eta jarraipena egingo die. Programak hamabi asteko iraupena du, eta erabat doakoa da, Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatzen baitu estudio kliniko baterako. Gure helburua da teknologiaren eraginkortasuna frogatzea, eta erakustea hamabi aste horietan zer emaitza lor ditzakegun.

## Nortzuk zaudete Trak. Silver programaren atzean?

Hainbat enpresa eta erakunde publiko gaude: Gipuzkoako Foru Aldundiaren Adinberri Fundazioa, Euskal Herriko Unibertsitatea, Zahartzaroko geriatria eta gerontologiako euskal elkarteak, Eraberri fisioterapia zentroa, eta gu, Trak, hornitzaile teknologikoa.

## Zer egin behar dute programan parte hartu nahi dutenek?

Gurekin harremanetan jarri behar dute 688 88 44 74 telefono zenbakira deituta edo [info@trak.es](mailto:info@trak.es) helbidera idatzita.



"Sekula ez dela berandu, eta egiten duten guztia, gutxi bada ere, beti izango dela beren onerako. Ez daitezela atzeratu gai izango ez direla pentsatuta edo taldean jende gazteagoa dabilela ikusita, ariketa guztiak norberaren gaitasunetara egokitzeko aukera egoten delako; eta hain zuzen ere, horretarako daude irakasleak: erakusteko eta laguntzeko. Beraz, ez dezatela lotsarik eta beldurrik izan, eta etor daitezela probatzera".

## Ekainaren 11n 65 urtetik gorakoentzat saio irekia egingo dute kiroldegian

Probatzera joan nahi duten 65 urtetik gorako herritarrek aukera paregabea izango dute aurki. Izan ere, ekainaren 11n, larunbata, hirugarren adinekoentzako saio irekia egingo dute kiroldegian. 09:00etan hasiko da saioa, eta nahi duten guztiak izango dute parte hartzeko aukera, doan. Eskatu duten gauza bakarra da aurrez izena emateko, gutxi gorabehera zenbat jende joango den jakin dezaten, saioa hobeto prestatu ahal izateko. Izena bi modutan eman daiteke: kiroldegira bertara joanda edo 943-89 44 28 telefono zenbakira deituta. **■**

Erronka berriei aurre egiteko, aldatu beharra dago. Iritsi da **TicketBAI**.

Enpresek aurrera egiten dutenean, Gipuzkoak aurrera egiten du.

Gipuzkoako  
Fora Alkandua  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA  
ORAIN  
Es futuro



**TicketBAI**  
GIPUZKOAN

[gipuzkoa.eu/ticketbai](http://gipuzkoa.eu/ticketbai)



## Pirinioetako Bidea

**2**022ko uztailearen 2an, katalanek eta euskal herritarrok 300 gailurretik gora argizatutako ditugu Pirinio osoan zehar. Farol bereziak eta linternak baliatuz, argi-lerro bat osatuko dugu Euskal Herria eta Katalunia batuz, gure herrien autodeterminazio eskubidea aldarrikatzeko.

Pirinioetako Bidea Euskal Herriko eta Kataluniako entitate sozialek elkarlanean antolatutako lehen mobilizazio herritarra da. Hala, erronka kolektibo eta parte-hartzaile erraldoia izango da.

Zenbait gailur soilik mendizale trebatuek igotzeko modukoak izango badira ere, gehien-gehienak egokiak izango dira era guztietako herritarrontzat.

Ingurumenarekiko begirunea ere funtsezkoa izango da

proiektu honetan. Horregatik, izen-emate sistema bat jarri da martxan, masifikazioak saihesteko aldera. Milaka eta milaka une magiko biziko ditugu eta esperientzia ahaztezina izango da: gure memorian iraungo duen mugarrria.

Pirinioetako Bidea argizatuz, nazioarteko komunitatearen arreta geureganatuko dugu herrion autodeterminazio eskubidearen alde.

Inposatutako mugak, errepresioa eta herrion borondate demokratikoa gauzatzea eragotzi nahi duten oztopo antidemokratikoak gaitzesten ditugula adieraziko dugu. Katalanek eta euskal herritarrok libre eta burujabe izan nahi dugu, gure etorkizuna erabaki nahi dugu, eta herritarron borondatea entzun eta errespetatu dadin eskatzen dugu.

**PIRINIOETAKO BIDEA  
ARGIZTATUZ,  
NAZIOARTEKO  
KOMUNITATEAREN  
ARRETA  
GEUREGANATUKO DUGU**

HAUXE BAI JENEROA!



## NIRE HONETAN



IÑIGO GAITON

## Paperaz


**K**oronabirusak jota gorriak ikusi zituen gizasemea nuen aurrean. Astearte buruzurrian, lasai zegoen herriko taberna bateko terrazan, bera bezala, erretiroa hartutako lagunak bueltan zituela. Hitz aspertua egiten ari ziren, elkarrizketa bat tarteko, haiengana ailegatu nintzenezan.

Pandemiak gaitzotuta jarraitzen zuen oraindik, eta lehen txertoak jartzeko zeuden artean. Izurritearen gaia atera zuen mahai gainera batek, eta, segidan, ospitalean egindako egunen berri eman zuen larri gaixotu zen gizonak. Sukar ikaragarriarekin egunak egin zituen, eta ez zion inori ere opa sufritzea tokatu zitzaion gurutze bide hura.

Kontakizuna bukatutakoan, halaxe definitu zuen momentu horretan sentitzen zuen ongizatea: "Une latzak pasatu arren, orain hementxe nago, sano-sano, eguneroko kafearekin *Marca* irakurtzen".

Xalo-xalo, intereseko albisteak paperean irakurtzea plazerarekin lotu zuen herritarrak, osasunarekin, eguneroko bizitzan aurki daitezkeen poz txikiekin, eta aparteko ilusioa egin zidan.

Artikuluia idazten hasita, gutxi falta izan zait errealitatea bihurritu eta herritarrak eskuartean *Berria*, *Karkara* edo *Urola Kostako Hitza* zuela esateko, baina ez zen hura kasua. Eta badakizue, kazetaria, beti, egia zor. ■■■



Euskal herritarrok 115 gailur argizatuko ditugu, Jaizkibeleetik Benasqueraino eta jende gehienarentzat irisgarriak dira. Herri bakoitzak gailur bat izango du izendatuta eta izena emateko garaian, jendeak nongoa den adierazten duenean, gailurra proposatuko zaio, herrikideekin batera joan dadin. Edonola ere, beste edozein gailur aukeratu ahal izango du. Mugikortasun

murriztua duten pertsonentzat egokiak diren gailurrak ere aukeratu dira.

Nafarroan dagoen Beratik kotxez hamar minutu joan eta oinez 30 minutuko ibilaldia eginda iristen den Soroko Gaina tontorra egokitu zaio Oriori.

Informazioa jasotzeko eta izena ematea nola egin jakiteko jarri harremanetan Orioko Gure Esku taldearekin. ■■■



### KOMUNIKAZIO MULTIMEDIA



egunkari  
**1**



telebista  
**1**



**4**  
aldizkari



**7**  
atari digital



**B**

BALEIKE

**K**

KARKARA

**erlo**

ERLO



MAXIXATZEN

**UH**

UROLA KOSTAKO  
HITZA

**U**

UZTARRIA

**ZH**

ZARAUZKO  
HITZA





LARDIZABAL ESKOLA

## Etapa berri bat



MADDI COTANO IKASLEA

LUKAS GOUVEIA IKASLEA

**G**u Lukas eta Maddi gara. Urte honetan Lardizabal Herri Eskolako 6. maila bukatuko dugu eta Lizardira joango gara ikastera datorren ikasturtean. Pena handia da eskola hau alde batera uztea, txikitatik hemen ibili baikara. Baina, bestalde, gogoia ere badaukagu Lizardira joateko.

Eskola honetan denetarik pasatu dugu: jende gutxiago dagoenez, sakonago ezagutu dugu elkar; gauza berri asko ikasi ditugu gure irakasleei esker; asko ikasi dugu, eta momentu onak eta txarrak pasa ditugu.

Lizardin, berriz, lagun asko egingo ditugu, Zarauzkoak, Getariakoak eta, noski, Aiakoak ere han elkartuko gara.

Lizardira joatea ere oso dibertigarria izan daiteke: jangelako orduan nahi duena etxera joan daiteke bazkaltzera, eta etxean bazkaltzen duenak arratsaldean denbora asko izango du lagunekin ateratzeko. Bestalde, badago aukera han bazkaltzeko. Han bazkalduz gero, aukera dago Hauspoan eskalada egiteko, alemanieraz hitz egiten ikasteko edo matematika, euskara, gaztelania eta ingeleseko laguntzazko klaseak hartzeko.

Ikasgai bakoitzak bere gela du, eta batetik bestera mugitu behar da; zer gauza eraman

behar diren ere jakin behar da bueltaka ez ibiltzeko.

Urtarrilaren 21ean joan ginen Lizardira bisitan. Nolakoa zen ikusi eta barrutik nola antolatuta zegoen ezagutzeaz gain, oso handia zela konturatu ginen. Galtzeko erraza, Aiako eskolan baino askoz errazagoa.

Lizardin arauekin oso zorrotzak dira, eta arau-hauste txiki batengatik mezu bat bidaltzen omen diete gurasoei, baina azaldu ziguten hori egiten dutela gure artean arazorik ez izateko. Bestalde, lehenago esnatu beharko dugu Lizardira garaiz heltzeko; lan gehiago egin behar da; azterketa gehiago eta irakasle gehiago daude eta denen izenak ikasi behar dira...

Laburbilduz, Lizardira joateko gogoia badugu, baina badakigu batzuetan momentu txarrak ere pasako ditugula: hasiera batean, zaila egingo zaigu lehenago esnatzea, etxeko lan horiek guztiak egitea eta azterketa guztientzako ikastea, baina azkenean ohituko gara eta oso ondo pasatuko dugu datorren bizitzako etapan ere. ■

**LIZARDIRA JOATEKO  
GOGOA BADUGU, BAINA  
BADAKIGU BATZUETAN  
MOMENTU TXARRAK  
PASATUKO DITUGULA**

BITTOR IZAGIRRE  
JOEL LIZEAGA

## Agorregi eta bere ingurua

**K**aixo, gu Bittor eta Joel gara, seigarren mailako ikasleak, eta Agorregira egin genuen bisitari buruz hitz egingo dizuegu.

Apirilaren 27an, seigarren mailako ikasleok autobusa hartu genuen Iturraranera joateko. Iritsitakoan, lau taldetan banatu ginen.

Ondoren, pentagono forma zuen leku batera joan ginen. Han, Araneak lau harri atera zituen bere motxilatik eta horietako bat burdin-harria zela azaldu zuen. Besteak, kareharria, eskoira eta uraren indarrak lisatutako harri bat ziren. Guk, taldeka, burdin-harria zein zen asmatu behar genuen.

Handik baso baten barnean sartu ginen. Inguruan zeuden zuhaitzak nola izena zuten galdetu zigun, eta inor ez zen gogoratzen. Segituan pista bat eman zigun, eta laster asmatu genuen. 11:30ak pasata pentagonora itzuli ginen. Jan eta jolastu ondoren, mendi ibilaldia hasi genuen Agorregira. Erreka baten ondoan denbora tarte bat egon ginen begiak itxita ingurumena entzuten. Ba al dakizue asko erlaxatzen duela hori egiteak?

Kanal batzuk ikusi genituen. Kanalak ibaietatik datoz, eta burdinolako ur depositura bideratzen ziren, euri-uraz aparte ura jaso ahal izateko. Bukatzeko, errota eta burdinola bisitatu genituen. Egun pasa ederra izan zen! Gomendagarria! ■

# 'Begizuri'-ren lehorreko arraun erronka



**IÑAKI ITURAIN IITURAIN@GMAIL.COM**

ARGAZKIAK: KUTXA FOTOTEKA

Martin Peronari omenaldia egin zion Andoaingo Gora Kaletxiki musika bandak maiatzaren 15ean Orioko plazan. Martin bandako kide da aspalditik eta han egindako lana aitortu eta eskertu nahi izan zioten, herrikideen aurrean. Alkateak lore sorta bat eskaini zion udalaren izenean. Orioko txaranga, kalean, estropalarientzako alironetan eta bestelakoetan herritarroi emandako musika eskertu nahiko zion, noski, alkateak.

Nik Martinen beste alderdi bat aipatu nahi dut hemen: aspaldiko istorioak kontatuzale ere bada Martin. Eta KARKARako Oroimenaren Kutxa izena duen atal hau alez ale betetzen duen honentzat, harribitxiak dira Martin bezalako herritarrak. Kontatzen hasi eta istorio harrigarriak entzun izan dizkiot Martini, historiaren osagarri direnak. Horixe eskertu nahi diot. *Begizuri*-ren erronka da horietako bat.

## 'Begizuri'-ren erronka

Isidro Solaberrieta arraunlaria zen. 1901ean Oriorentzat bandera irabazitako traineruan zihoan. Gizon handia, altua eta indartsua zen. Ustea ere halakoxea zuen, gorputzaren neurrikoa. Harrokeriatan

ibiltzen zen beti, eta jendea mespretxuz hartzen zuen. Tabernako ardoak bizituta, eskukada emango zion edozeini bere bidetik kentzeko; erronka joko zuen nonahi: "Datorrela nere kontra, hemen gizonik baldin bada! Ez dago neri irabaziko didanik, ez mundun ta ez Aian!".

Garai hartan indar handia zuten apustuek eta erronkek gizonen artean. Indarra nagusi: borrokan egiten zuten, elkarri heldu eta zeinek zein lurrean etzanda utziko; mahaiaren bueltan aurrez aurre eseri eta pultsua egiten zuten, ukondoa mahai gainean tinkatu eta elkarri eskutik helduta zeinek bestearen besoa mahaiaren etzanaraziko. Horrelakoak.

Bazen beste aurrez aurreko bat Begizuriri bereziki gustatzen zitzaiona: arraun-makilaren dema. Beste askotan bezala, erronka jo zuen egun hartan Txokolatenea tabernan, sartu gabe sekula uzten ez zuen

## MUSIKARI APARTAZ GAIN, ASPALDIKO ISTORIOEN KONTALARI BIKAINA DA MARTIN PERONA

edaritegian. Holaxe bota zuen aldi hartan: "Zer, ba al da gizonik taberna hontan? Inor atrebituko al da nirekin makil-tiraka?". Lehenago ere bota izan zuen horrelako erronkarik han, baina ordura arte isiltasuna nagusitzen zen Begizuriren harrokeriaren oihartzun, eta, isilunearen ondoren, kartetan edo berriketan segitzen zuen jendeak, gizon erraldoiari kasu handirik egin gabe, haren aurrean hori zelakoan jarrerarik egokiena; zuhurrena bai, behintzat.

**'Begizuri' 'Zentellas'-en kontra**  
Baina, egun hartan, ez zen hala gertatu. Mahaian musean ari zen laukotetik, bat altxatu eta heldu egin zion erronkari, onartu egin zuen desafioa: "Nik jokatuko diat hiri makiletan!". Inazio Lertxundi *Zentellas* zen gizon hura. Haren bat-bateko hitzek ere isilunea ekarri zuten, baina ez zuen askorik iraun. Barrez hasi zen Begizuri, barre-algaretan. Agudo kendu zioten barrerako gogoa Inazioren hurrengo hitzek: "Zer, ez al haiz atrebitzen, erronka bota eta norbaitek onartu duenean hik atzeraka egin behar al dek?". Min hartu zuen Begizurik: "Txikitu egingo haut".

Handik aurrera, mugimendua nagusitu zen tabernan. Han barruan proba egiteko nahikoa



Argazia 1901ekoa da, Orioko traineruak Kontxako lehen bandera irabazi zuenekoak. Manuel Oliazolako patroia zuten kuadrillako arraunlaria zen Begizuri.

tokirik ez zela-eta, kanpora ateratzea adostu zuten. Denak kalera irtenda, tabernan etxeoandrea beste inor ez zen geratu. Kalean orduan ez zen automobilik ibiltzen, eta nahikoa toki bazen norgehiagokarako.

Elkarren aurrez aurre lurrean eseri, elkarri oinetakoen azpiak itsatsi, erresistentzia egiteko, bien artean makila jarri, puskatuko ez zen zuhaitz-adar sendo eta lodia, eta lehiakideek makilari heldu zioten bi eskuekin, bakoitzak bere aldetik. Epailak abiatzeko agindua emandakoan, tenk egin zuten biek. Arraunean bezala, bizkar, gerri, hanka eta besoen indarrak denak batera jarrita, tira egin zioten makilari bakoitzak bere aldera, arerioa bere tokitik atera eta berera ekartzera saiaturaz. Bazen jarduera hari lehorreko arraunketa edo estropada deitzen zionik. Uretakoak adinako grina sortzen zuen lehorrekoak, ikusleak bertatik bertara, orroka.

Lehia gogorra joan zen, herritarren oihu eta marruen artean lurrean eserita zeuden bi gizonak ahalegin betean ari



Aritzaga kalea izan da Orioko beheko kaleko bide nagusia. XX. mendearen hasieran herrian ez zebilen automobilik, oinezkoentzako kaleak ziren denak.



Kalea arraunlariz eta arraunzalez bete ageri da. Begizuriren eta Zentellasen arteko erronkak ere pilatu zuen jendea, Txokolateneko tabernaren aurrean.



1970ean desegin zen arte, musika banda herriko ekitaldi nagusi guztien erdigunean egon ohi zen: alironak, prozesioak, herriko festak, igandeko dantza saioak...



Plaza erreboterako pilotalekua zen. Kukuarrin ez zegoen gurutzerik. Ez zegoen frantses fabrikarik. Xixarioren aurrean arranpla zen, handik lehorreratzen ziren baleak. Arrantzarako, traineruak zituzten, eta bapore txiki-txikiak.

ziren, masailak gorrituta, oinekin bestea bultzatuz, besoen indarraren bitartez makila eta harekin batera kontrarioa bereganatu nahian, nork bere aldera ekarri nahian.

### **Aguazilak lehia galarazi nahi**

Aguazila etorri zen, eta norgehiagoka bertan behera uzten saiatu. Ahalegina egin

zuen... Baita azkar asko etsi ere. Jendea oihuka hasi zitzaion, gizon guztiak besoak altxatuta. Batzuen masail gorrituak eta lepoko zainak lehertzeaz ikusita, aguazilak beldurtu eta atzera egin zuen, debekuak lehiak baino kalte handiagoa ekarriko zuelakoan.

Halako batean, Inaziok, ez zegoen tokitik indarrak ateraz,

sekulako eupada eman zion makilari. Begizuri hegaldatu egin zen: ipurdiak lurra utzi eta gorputz guztia airean altxatu zitzaion, harri koskor bat balitz bezala, hegan, lurrean eserita tinko segitzen zuen Inazioren gainetik. Begizuriren oinetako baten bota-perrak kopeta jo zion Inaziori. Begizurik Inazioren atzealdean bukatu zuen etzanda, buruak lurraren kontra sekulako zartada hartuta. Zentellasek odoletan zuen kopeta. Herritarrak pozak airean, sinetsi ezinik, gustura ikusitakoarekin. Bazen han biba eta txaloa! Orduan bukatu ziren Begizuriren harrokeriak betiko.

Begizuri eta Zentellas biak arraunlari ibili ziren Orioko traineruan. Begizuri, 1901, 1910 eta 1911n; Zentellas, berriz, 1919 eta 1921ean. Begizuri zaharragoa zen.

### **Hankak tostara iristen ez traineruan**

Martin Peronari, bere aitona Inazioren balentria kontatzeak adoretuta, beste istorio bat ere bururatu zitzaion. Ez zen gogoratzen zer urtetan izan ote zen, baina ondo zekien, amonari hainbat aldiz adituta. Holaxe kontatu zigun:

"Donostiako estropadan, garai batean, trainerua trukatzera behartuta zeuden kuadrillak. Lehenengo saioan aurrena eta azkena

geratutakoek ontzia trukatu behar izaten zuten, bigarrenak eta azken-bigarrenak ere bai, eta horrela denek. Urte batean, gainera, galarazi egin zuten traineruaren barruko neurriak aldatzea. Gure aitonaren kasuan, besteen traineruan jarrita, haren oinak ez ziren ailegatzen bere aurreko tostara. Arazoa. Ez zekiten zer egin, arazoa nola konpondu. Halako batean, ideia ona bururatu zitzaien: Inazioek etxetik ekarritako bost alpagata pare jantzi zituen oinetan, elkarri ondo lotuta. Era horretan lortu zuten bere oinak tostara ondo iristea. Estropada, hala ere, desastre joan omen zen denentzat, arraunlariek ondo sufrituta, bakoitzak aurrean zuen mutilari bizkarrean arraunarekin joaz, denek bizkarra urratuta eta ubelduta, haragi bizitan. Hori urte bakarrean gertatu zen, gero indargabetu egin zuten-eta traineru barruko neurriak aldatzeko debekua zekarren araua".

### **Txolarraren apustua**


Arraunlarien artean bezala, pilotazaleen artean ere izaten ziren erronkak eta apustuak. Orioko frontoi orduan estali gabearen atzealdean jokatu zuten apustua esku-pilotan, gerra ondoreneko garaian. *Txolarrak* astoa aldamenean

zuela jokatu behar zuen partidua, astoaren bi metroko sokari helduta, hura behin ere askatu gabe. Irabazi egin zuen. Gero, Txolarra erraz nagusitu zela-eta, beste apustu hau onartu zion kontrarioak: oraingoan, aurkariak jokatu zuen astoaren sokari helduta, baina Txolarrak bi hankak lotuta zituela, oinez egin ezinik, saltoka. Pronostikoak erabat aldatu ziren, bestearen alde jarri ziren. Itxura batean, Txolarrak ezin zion irabazi, inola ere. Baina Txolarra iritsi zen 22 tanto egitera, berak irabazi zuen. Nola izan zen hori posible? Astoak izan zuen, noski, horretan zerikusia. *Miño*

zuen izena lau hankakoak. Txolarrak, berak pilota jo orduko, deitu egiten zion astoari: "Miño, Miño"; animalia oso fidela zuen, beti obeditzen ziona, eta jabeak Miño aipatu orduko harengana joaten zen astoa. Bestea ezin iritsi Txolarrak jotako bi-paretara, astoa txokora hurbiltzen baitzen, han zegoelako Txolarra. Erronka honen berri Juan Carlos Intxauspe pilotari ohiak kontatu zigun. Patxi Danbolin zenak esaten zuenez, zuzenean ikusi zuen lehia hura. "Eta hori dana hala bazan edo ez bazan, sar dadila kalabazan eta atera Oriyoko plazan!". ■■■



Kiroldegirik, futbol zelairik, kultur etxerik eta Arraunetxerik gabeko herrian, frontoiak protagonismo handia zuen. Han gauza asko izaten zen... asko, tartean apustu xeblebre askoak ere bai.



**niko**  
taberna

Karta  
Pintxo tradizionalak  
Okindegia

Palota Kalea, 5 · 20810 Orio · Egin erreserba 943-53 61 27

**Lizaso**  
**Dekorazioa**



Eusko Gudari, 48 · ORIO · 943-83 07 84  
itzilizaso@gmail.com

**OINARRI** **PODOLOGIA** **ZENTROA**



Arrantzale kalea, 63 behea  
ORIO  
943-57 53 61  
oinarri@podologia-oinarri.com  
www.podologia-oinarri.com



**MARIJO**

ILEAPAINDEGIA  
Eusko Gudari, 8 behea · ORIO  
943-13 47 29

**PAKO IMAZ**



pertsianak

**PERTSIANAK**  
aluminioa  
motorrak  
automatismoak  
konponketak

600 70 52 27 · 943-13 29 01  
pakoimaz@hotmail.com · ORIO

**MENDIZABAL**  
**AROTZEGIA**

Neurriko armairuak eta egurlanak

Altzerri bidea, Beti-Alai etxea · AIA-ORIO  
943-83 11 75 · 645 70 84 91  
mendi@arotzgi.net

Hemengo haragia.  
Etxeko produktuak: tripaki, odolki,  
txekorra, txorizo, kroketak...



**HARATEGIA**  
**PATXI**  
**OLIDEN**  
**URDTITEGIA**

Eusko Gudari, 25 · 943-83 00 10



Orioko  
Herri  
Ikastola  
**ORIO GARA**

Abeslari kalea, 8  
943-83 47 04  
Fax-a: 943-13 09 38  
orio@ikastola.eus  
www.oriokoikastola.eus



**Portu**  
Erreteta - Jateketa

Kazolitat, baserriko oilaskoa,  
parrillako errekiak, eguneko menua...

Santio Erreka auzoa, z/g · AIA  
943-89 44 34



**INDO**

**Garraio frigorifikoa**  
**Nazionala eta Nazioartekoa**

generoa




garraioak

ibilbideak



kamarak

Ubegun industriagunea, 4  
AIA-ORIO  
943-89 4024 · FAX-a: 943-13 01 44



# Marka laga duen festa

Balearen Eguna berezia izan da aurten, arrazoi desberdinengatik. Maiatzaren 14an ospatu zen, larunbatarekin, eta herritarren parte hartze zabalak gorpuztu zuen ospakizun sentitua. Festa berezia gogora ekartzeko, Errikotxia Bertso Eskolako ikasleek egin dute egunaren kronika, bertso idatziekin. Argazkiak: **Iban Egiuren**.

**1**  
Goizetik txistulari,  
trikiti-joleak  
gero jarraitu zuten  
sardin-saltzaileak,  
Pello ta Nikolasa  
ta kantu-zaleak,  
musikakin alaituz  
herriko kaleak.

**2**  
Eguerdian banatu  
zituzten sardinak.  
Denak ondo erreta  
ez zeuden gordinak.  
Moilatik jo genitun  
txalorik handinak.  
Balea ekarri zuten  
arrantzale finak.

**3**  
Arraunlariek zuten  
balea harrapatu,  
plastikozko batekin  
zaharra aldatu,  
eskerrak ez zioten  
arpoirikan sartu  
bestela egingo zen  
balia pintxatu.

**4**  
Ordubiterdietan  
hasi zen bazkaia  
sardinak jan ta gero  
hortako garaia  
eguna ospatzea  
herritarren nahia  
goraino bete zuten  
plazan zegon mahaia.

**5**  
Bazkaria ta gero  
etorri zan dantza  
arrakasta handia  
izan zuen antza  
ikusi genituen  
salto ta balantza  
ondo egin genuen  
badugu zalantza.

**6**  
Iluntzean hasi zen  
Elektrotxaranga  
herritikan barrena  
ta denak emanda  
zaharrek pasa ziguten  
gazteenei txanda  
eta hortik aurrera  
ederra parranda.

**7**  
Jendez bete genuen  
gauetz plaza dena  
giro bikaina eta  
musika ozena  
iruditu zitzaigun  
DJ Arosena  
eguna bukatzeko  
modurik onena. ■■■











# NON DAGO KARKARA?

Karkara pertsonaia aldizkariaren zein orrialdetan dagoen ezkatuta aurkitu behar da, eta erantzuna [karkara@karakara.eus](mailto:karkara@karakara.eus) e-posta helbidera bidali ekainaren 24a baino lehen.

**Saria:** Zudugarai txakolin botila. Karkara komunikazio taldean bazkide izatea da baldintza bakarra.



Maiatzeko Karkara aldizkarian Karkara pertsonaia non ezkatuta zegoen asmatu behar zen. 33. orrialdean zegoen ezkatuta, eta **Ane Gurrutxaga Roteta eta Kontxi Eizagirre** bazkidea izan da irabazlea.

# "Parte hartzea kualitatiboki indartzea da aurtengo helburua"

**MIRIAM GARCIA** EUSKARALDIAREN DINAMIZATZAILEA ORION ETA AIAN

Herrigintzako hainbat alorretan lan egin eta gero, Miriam Garcia izango da Euskalaldiaren hirugarren edizioako dinamizatzailea Aian eta Orion. Gogotsu heldu dio erronkari: Euskalaldiko parte hartzaileen kontzientzia indartu nahi dute aurren, zenbakiez gain, egitasmoaren eta herritarren arteko harremana sendotzeko.

Testua eta argazkiak: **Iñigo Gaiton**.

## **Z**erk bultzatu zaitu Euskalaldian lan egitera?

Aurreneko edizioan ere jardun nuen lanean koordinazio orokorreko lantaldean. Azken txanpan sartu nintzen, hiru hilabetez, komunikazio taldeko errefortzu modura. Lantaldeko kide nintzela bizi izan nuen aurreneko Euskalaldiaren leherketa hura, dena berria izan baitzen guztiontzat. Indar handia eman zidan esperientzia hark. Baionan irekierako ekitaldian egon nintzen, eta mugarri handi bat jarri izanaren sentsazioarekin geratu ginen guztiok.

Handik bi urtera, 2020ko Euskalaldiak ikasten eta lanean harrapatu ninduen, eta *ahobizi* izatera mugatu nintzen. Aurren, lanpostuak atera zituztela jakin nuenean, ez nuen bi bider pentsatu

izena ematerako orduan; egitasmoa berriro barrutik bizitzeko gogoia neukan, eta hementxe nago.

**Eskarmentua duzu hainbat lan eremutan: kazetaritza, bideogintza, diseinu grafikoa, feminismoa... Urtez urte pilatutako ezagutza Euskalaldian aplikatzeko aukerarik ikusten al duzu?**

Talde lanean asko ibiltzea tokatu zait euskalgintzan edota hainbat elkartetan, ia beti txikitik eragiten. Ikasten joan naizena baliagarri izango zait oraingo lanerako, hori ziur: batzordeak aktibatzeke, lan dinamikak sortzeke, boluntarioen lana kudeatzeko... KARKARAN ere egin nituen urte batzuk, eta Euskalaldirako baliagarri izango zaidan harreman sare zabala sortu nuen orduan.

Lan profesionalaz gain, boluntario modura ere ibili naiz hainbat eragile taldetan, eta bete-betean sinisten dut herrigintzan, inguru hurbilean





eragiteko bide eraginkor eta aberasgarriena iruditzen baitzait. Esate baterako, Xaltxerak talde feministarekin egindako lanarekin ikusi dut nola, urtez urtez, herria joan den gai jakin batzuen inguruko kontzientzia hartzen. Esperientziak esaten dit Euskaraldiak ere baduela indar hori, eta saiatuko gara Aian eta Orion ahalik eta gehien eragiten.

**Dagoeneko hasi zara lanean Aian eta Orion. Orain arte ikusi duzunaren arabera, zein da langile modura duzun erronka handiena?**

Parte hartzea handia izatea nahiko genuke aurten ere, baina kopurua baino gehiago, parte hartzearen kalitatea hobea izan dadin saiatuko gara, bi zentzutan: batetik, batzordeetako kideek lan boluntarioa egiten dute, eta gustatuko litzaidake taldeen dinamika eramangarria izatea, atsegina, eta karga bat ez bihurtzea. Denok gabiltza mila saltsetan sartuta, eta jendeak erreta bukatzea ekidin behar da. Hortaz, batzordeetako lagunak goxatzen saiatuko naiz, haien parte hartzea esperientzia on bat izan dadin. Orioren kasuan, gazteekin osatutako beste batzorde bat aktibatzen ere saiatuko naiz, beste taldearen paraleloan lan egin dezan, adin tarte bateko jendearengana errazago iristeko xedearekin.

**"AURRENEKO EDIZIOAN ERE JARDUN NUEN LANEAN, ETA INDAR HANDIA EMAN ZIDAN ESPERIENTZIA HARK"**

**"BATZORDEEN LAN DINAMIKAK ATSEGINA IZAN BEHAR DU, JENDEAK EZ DEZAN ERRETA BUKATU"**

**"PARTE HARTZAILEEN LORPEN INDIBIDUALEI IKUSGARRITASUNA EMAN NAHI DIEGU"**

Bestalde, Euskaraldiko ariketa praktikoan zentratuz, helburua da jendeak kontzientzia handiagoarekin hartzea *ahobizi* eta *belarriprest* rolak.

### **Zein zentzutun?**

Aia eta Orio euskararen arnagune diren heinean, zenbaitek pentsa dezake ez dutela Euskaraldia bezalako ariketa baten premiarik, herri euskaldunak direlako. Uste hori okerra da. Asko dago egiteko, euskaldun zaharren kontzientzian sakontzen, adibidez. Horiengan eragitea ezinbestekoa da, arnaguneen osasuna bermatzeko.

Euskaraldiaren dinamikari dagokionez, aurten lortu nahi da jendeak hobeto barnertzea bi rolen funtzioak. *Ahobizi* edo *belarriprest* izateak lotura gehiago izan behar du parte hartzailearen konpromisoarekin, duen euskara gaitasunarekin baino. Uste oker bat zabaldu zen aurreko edizioetan: euskara ondo menderatzen dutenek *ahobizi* izan behar dutela, eta ikasten ari direnek, *belarriprest*. Ez du zertan horrela izan. Euskaldun zahar bat izan daiteke *belarriprest*, adibidez, ikusten badu inguruan baduela jendea, nahiz eta ulertu, berarekin euskaraz egitea kosta egiten zaiona, ez delako gai ikusten elkarrizketa elebidunak izateko. Horregatik, euskara ondo menderatzen duten herritarrak rola modu kontzientean aukeratzera animatu nahi ditugu, beren konpromisoaren arabera.

### **Zer berezitasun du Euskaraldiaren hirugarren edizioak?**

Antolaketari dagokionez, dinamika lehengo bera izango da teknikoki. Izen ematea erraztuko da; lehengo edizioetan parte hartu duten norbanako eta taldeek mezu bat jasoko dute, eta klik bakarra eginda izena emango dute aurtengo Euskaraldian.

Bada beste berritasun bat: aurreko urteetako lorpenei ikusgarritasuna eman nahi zaie *#hitzezekiteko* ekimenaren bitartez, eta jendea animatu aurten ere helburu eta erronka txikiak jartzera. Pertsona batek kontu dezake, adibidez, nola Euskaraldiari esker pasatu den dena gaztelaniaz egitetik elkarrizketa elebidunak

izatera eguneroko bizitzan. Lorpen indibidual horiek dira Euskaraldiaren benetako eraginkortasunaren islada, eta garrantzitsua da zabaltzea, ezagutzera ematea, jendea egitaspora erakartzeko.

### **Euskaraldiko lehen ediziotik azpimarratu da euskalgintzako eragileen eta administrazioaren arteko elkarlanaren garrantzia. Zer balio ematen diozu?**

Lankidetzara hori ezinbestekoa da halako egitasmo batean. Batzordeak eta boluntarioak dira ekimenaren arima eta bihotza; hor daude norbanakoak eta gizarte eragile desberdinen ordezkariak, baina aldi berean, hanka instituzionala ere bai. Esango nuke euskalgintza dagoela egitasmoaren muinean, eta administrazioaren parte hartzeak ematen diola babes sinbolikoa eta praktikoa, haiek jartzen dituztelako baliabide asko (ekonomikoak, pertsonalak, azpiegiturak...). Babes horri esker hartzen du Euskaraldiak dimentsio handiagoa. Urola Kostan, kasu, UKUEk kontratatu gaitu hiru dinamizatzaileak, mankomunitatearen eta Topagunearen arteko hitzarmen bati esker. Aurreko edizioetan ikusi da dinamizatzaileak dauden herrietan Euskaraldiak indar handiagoa hartu duela, dinamika eraginkorragoak gauzatzeko aukera eta denbora egon delako. Horregatik da garrantzitsua administrazioaren babesa, besteak beste.

### **Zer jarduera aurreikusten dituzue datozten hilabeteetarako?**

Aian oraindik ez dugu ezer zehaztu, batzordea aktibatze lanetan ari garelako oraindik. Orion, hil honetan zerbait egingo dugu ziurrenik, eta gero irailetik aurrera gehiago. Oraindik airean ditugu gauza asko, eta ezin dugu ezer aurreratu. Argi dagoena da kaleak berreskuratzen saiatuko garela. Aurreko edizioak zapo gazi-goza laga zuen, pandemiagatik ezin izan baitzen nahi bezala aurrera eraman. Egoerak hobera egin duela aprobetxatuz, Euskaraldiak berriro kalean presentzia izatea ezinbestekoa da guretzat. ■



**ASKE MAITE ASKE BIZI!** bertako  
igogailuak | ascensores

[www.bertako.eus](http://www.bertako.eus) GIPUZKOA 943 903 450



**Sagasti**  
LEIHOAK

Tel.: 943-13 00 77 - Fax 943-53 71 50  
sagasti@sagastileihoak.com  
Eusko Gudari, 7  
20810 Orio

Roberto Sagasti

Kalitatezko materialak  
PVC eta aluminioa · Isolamendu termiko eta akustikoa  
Salmenta osteko zerbitzua

www.sagastileihoak.com



**Oreka**  
fisioterapia

Eusko Gudari, 54 · 943-13 35 37

Ekografia muskulo-eskeletikoa  
Eskuzko terapia · Talka-uhinak  
Masaje terapeutikoa · Osteopatia

BODEGON

# Sarasua



info@bodegonsarasua.es | www.bodegonsarasua.com | Erreserbak: 943-83 00 05



**SU KIA**  
TABERNA · JATETXEA

Eguneko menua  
Asteburuetakoa  
Oilaskoak eramateko  
Ogitartekoak  
Plater konbinatuak  
Terraza ederra  
(alboan umeentzako parkea)

Abaromendi 38, behea 1  
ORIO · 943-89 21 29



**URANGA**  
burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

Eusko Gudari, 5 · ORIO · 943-83 12 36

# ZINKU

## ERAIKUNTZAK

- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzan erreformak
- Teilatuak
- Sukalde, komunak, etb.
- Eraisketak

*deitu eta eskatu aurrekontua  
konpromisorik gabe*

*Ander Zinkunegi*  
**667 74 02 79**



**XIXARIO**  
Erretegia


Txuleta eta arrainak  
parrillan

Eusko Gudarien kalea 2 · ORIO · 943-83 00 19



**Zaragueta IPI**  
HERRI ESKOLA 2-16

943-89 92 43  
012137aa@hezakuntza.net





**Zarautz**

Hileta Zerbitzuak  
1962. urtetik zure zerbitzura

**24 ordu zure zerbitzura**  
Beilatokia · Lekualdatzeak ·  
Eginbide guztien tramitazioa

Araba kalea 35 · ZARAUTZ  
943-89 49 37  
info@zarautzhiletazerbitzuak.eus

**Sinergia**  
fisioterapia eta ikerkuntza

Ibai ondo, 1 behea · ORIO  
943-13 05 77 · 685 71 85 95  
sinergiafisioterapia.com

- **Lesioak:** bihurdurak, tendinitisiak, zaintiratuak, kontrakturak, hanka handituak, artrosia, kirurgia osteko birgaitzea, bizkar hezurreko arazoak, arnas gaixotasunak haur eta helduetan, lesio neurologikoak, haurdunaldirako tratamendu bereziak, erditze ondorengo errekupezioa.
- **Tratamenduak:** terapia manuala, osteopatia, masajeak, drainatze linfatikoa, arnas fisioterapia, kinesoaping-a, pilates, abdominaletako gimnasia hipopresiboa (GAH), REDCORD.



# Sorginak



EGOITZ DORRNSORO TABOADA

**B**adira sorginen inguruko nahi beste mito eta ipuin. Sorgin hitzaren etimologiaren inguruan ere badira hipotesi franko: mina baretzen duen pertsona, sortzen duen pertsona, sorgintzen duena (*sor* moteltze edo tontotze bezala ulertuz)... Terminoaren egungo ulerkera ezaugarri horien dantza batek osatzen duela esango nuke, Inkisizio garaiko definizioaren kontra, landareak erabiliz sendatzen zuen *emakumearen* irudia gailentzen ari delarik.

Egin dira ahalegin asko Inkisizioak erre zituen emakume (ez beti) horien izena garbitu eta sorginek garai hartako gizarteetan zuten lekua ulertu eta gizarteratzeko. Baina, nire ustez, beste galdera bat ere gehitu behar diogu: zergatik tematu zen horrenbeste Inkisizioa Europan sorginekin? Silvia Federicik esaten duen lez, gizarte kapitalista batetara salto egiteko beharrezko fenomeno izan zen.

Eliz zein estatu gizonak gizartea ulertu eta antolatzeke modu berri batekin etorri zen sorgin ehiza. Lekuan lekuko ezaugarri berezituak eduki arren, Europa osoan oinarri berak zituen, baita egun Afrikan zein munduan ematen direnek ere: diru-ekonomiaren bidean, lur komunalak pribatizatzea eta kapitala metatzea.

Produktzio molde berri horrek, lanaren gaitasun produktiboa sustatuko zuen gizabanakoa behar zuen, horretarako mundu naturalarekin, pertsonekin eta beraien gorputzekin lotzen zituzten harreman sareak deuseztatuz.

Testuinguru hartan emakumeak arriskutsuak ziren, garaiko gizarteetako emakumeen erreproduktzioarekiko harreman eksklusiboa mugatu behar zutelarik, "mundu naturalaren arrazionalizazioa" garatzeko. Sorgin ehizak terrorea ezarri zuen emakumeengan, hortik feminitate berri bat sortuz: emakume asexuatuak, esanekoak, otzanak, gizonen mendekoak, kapitalismoak debalutatutako jardueretara mugatuak...

Beraz, sorgin ehizak mundu kapitalista sortzeko tresna bezala ere ulertu behar dira. Feudalismo garaiko emakume boterearen errepresio bezala. Agian, bakarren batek emakumeen ehiza egungo *ongizatera* iristeko beharrezko lan gisara justifikatuko du, Amerikako kolonizazioaren moduan (ezta Jmpaxai). Garaiko pentsamoldea ezagutuz eta gertaerak testuinguruan ipiniz dakigu sorgin ehizaren zergatia. Egia da historia ezin dugula aldatu, baina kontaera aldatu dezakegu, jakina baita historia irabazleek idatzia dela. Bide horretatik, historiako zein pertsonaia edo gertaera landu nahi dugun erabaki dezakegu. Hausnartze horretatik, nik behintzat argi dut nahiago dudala sorgin kale bat eduki, kolonialista baten kalea eduki baino. Ea udako solstizioarekin bat, gure kaleak bere gorputzaren eta bizitzaren jabe diren sorginez betetzen diren. ■■■

**SORGIN EHIZA GIZARTE  
KAPITALISTA BATERA  
SALTO EGITEKO  
BEHARREZKO  
FENOMENOA IZAN ZEN**

WAV WAV  
TXOJUFRIZOWAV  
HARRIJUFGAWAVRRI YNQ  
SAMAWAVRRA JUF HAUJUFXE  
YNQ, BELAWAVRRAK JUFEYNQRE  
WAVZAPOWAVRE JUF  
HOWAVBEA YNQ WAV  
DU



## Zuriko eta Xapi




Hona hemen gure bi laguntxo: ZURIKO zakurra eta XAPI katua. Bete itzazu sudokuen hutsuneak, bi izenak osatzen dituzten hizkiez (seikoan Z, U, R, I, K eta O, eta laukoan X, A, P eta I). Gogoratu hizkiek behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

YNQ WAV  
WAV HAYNQI WAV  
JUFDAWAV ARTAYNQ  
-BLIWAVRUYNQA

**Zeeer?!** Bide batez, ezaba itzazu WAV, YNQ eta JUF guztiak eta zakur-katuok zer esaten ari diren ulertuko duzu.

## Handitik txikiira

Ordena itzazu inurri eta madalena hauek, handienetik txikienera, 1etik 7rako zenbakiak erabiliz (handienari 1 eman eta txikienerari 7).



## BadUNK






ZURE  
ATZETIKAN NABILELA  
A A UA A AAA

## Itzala

Erreka harririk harri igaro nahi duen turista honek zein du itzal zuzena?



## Hamahiru



Beno, beno, beno, hori da abere pila! Eta gidariek ez al dute arriskurik ikusten?! Nolanahi dela ere, aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. Hamahiru dira guztira.

## DOMINOAN

Garaian garaikoa. Domino hau ekainean azoketan ikusiko ditugun sei gaiez egina dago. Honokoak dira: ziazerba edo espinaka, angurria, marrubia, gerezia, brokolia eta piperra. Marraztu hutsunetan falta diren irudiak, domino zati honek zentzua izan dezan.



Soluzioak ikusteko:  
[www.plazanbazan.eus/](http://www.plazanbazan.eus/)

## IRAGARKI SAILKATUAK

### ALOKAIRUA

Autokarabana eta karabamentzat plazak alokagai, garaje estalia eta beharrezko ekipamentuarekin. Aia-Orio. Tel. 620 85 69 53 (goizez).

Alokatzeko garaje bila Goiko kalen. Tel. 690 27 28 42.

### LAN BILA

Neska euskalduna eskaintzen da umeak edo adineko pertsonak zaintzeko. Neska arduratsua eta berehala lanean hasteko prest. Telefonoa: 627 61 37 83.

Emakume gazte bat lan bila. Pertsona helduak eta haurrak zaintzeko prest eta baita garbiketeta lanetarako ere. Berehala lanean hasteko moduan. Tel. 642 69 60 38.

Lan bila nabil, etxe garbiketarako egiteko prest. Tel. 641 44 60 70.

Etxeo lanak egiteko edo zaintzan lan egiteko prest nago. Tel. 631 82 44 52.

Lan bila dabilen emakumea naiz. Bikaina naiz haurrak zaintzen, eta garrantzi handia ematen diot garbitasunari eta txukuntasanari. Arduratsua naiz, eta arreta handia jartzen dut nire lanean. Berehala lanean hasteko prest nago. Tel. 602 08 98 86.

Lan bila nabilen neska bat naiz. Haurrak edo adineko pertsonak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest nago. Barneko zein kanpoko langile bezala, edo orduka. Esperientzia eta erreferentziak ditut. Samanta. Tel. 643 85 78 54.

Emakume gaztea etxeko lanak, garbiketarako edo tabernako lanak egiteko eskaintzen da. Egun osoa edo orduka. Telefonoa: 627 09 07 06.

Neska gaztea haurrak eta adinekoak zaintzeko prest, irailetik aurrera. Esperientzia dut zeregin horietan eta baita prestutasun osoa ere. Telefonoa: 695 37 82 60 Estrella Reyes.

16 urteko neska arduratsua naiz, eta haurrak zaindu nahiko nituzke udaran. Tel. 634 40 95 25.

### SALGAI

Olaciregi txipironera salgai. Suzuki DFIS motorra. Abendura arte aseguruia ordaindua du. 3.500 euro. Tel. 657 77 45 11.

Zerrama, apotea, txerrikumeak eta txekorrek salgai Usurbilgo baserri batean. Tel. 607 66 86 03. Joxe Krux.

### BESTELAKOAK

Land Rover Defenderra erosi nahiko nuke, berdin du zer egoeratan dagoen: ITVa pasa gabe, kolpeekin, aberiatuta... Tel. 623 17 95 37.

Orion bizi den familia bat autokontsumorako baratze ekologiko bat egiteko lurzoru baten bila dabil alokairuan Orion edo inguruan. Tel. 657 71 96 14.

Iragarkietarako bokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943-83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: [karkara@karkara.com](mailto:karkara@karkara.com). Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.



**larzALDIK**

## Kanpaldiak uztailean eta abuztuan

Astelehenetik ostiralera, 9:00-14:00 artean  
8-16 urte bitarteko gaztetxoentzat

### Izen-ematea:

ekainaren 20a baino lehen

Udalekuak ekainaren 20tik  
irailaren 2ra arteko asteetan



Lartzandieta Baserria · Urdaiaga auzoa, 44 (Usurbil) · 666 60 74 47 · [info@larzaldiak.com](mailto:info@larzaldiak.com)

## ITSASOA

Eguna	Itsasgora	Itsasbehera	Ilgaria
1	06:22 eta 18:33	00:15 eta 12:21	●
2	06:57 eta 19:07	00:51 eta 12:55	●
3	07:33 eta 19:43	01:27 eta 13:31	●
4	08:12 eta 20:25	02:06 eta 14:10	●
5	08:57 eta 21:13	02:48 eta 14:54	●
6	09:51 eta 22:10	03:38 eta 15:48	○
7	10:55 eta 23:14	04:36 eta 16:51	○
8	12:04	05:41 eta 17:59	○
9	00:21 eta 13:07	06:44 eta 19:03	○
10	01:24 eta 14:02	07:42 eta 20:00	○
11	02:20 eta 14:52	08:34 eta 20:52	○
12	03:12 eta 15:39	09:23 eta 21:42	○
13	04:02 eta 16:26	10:10 eta 22:32	○
14	04:52 eta 17:13	10:57 eta 23:22	○
15	05:42 eta 18:02	11:44	○
16	06:34 eta 18:52	00:13 eta 12:33	○
17	07:26 eta 19:46	01:06 eta 13:24	○
18	08:21 eta 20:42	01:59 eta 14:18	○
19	09:19 eta 21:41	02:55 eta 15:14	○
20	10:20 eta 22:43	03:54 eta 16:15	○
21	11:26 eta 23:47	04:56 eta 17:09	○
22	12:32	06:00 eta 18:26	○
23	00:52 eta 13:34	07:03 eta 19:30	○
24	01:54 eta 14:29	08:01 eta 20:28	○
25	02:49 eta 15:17	08:52 eta 21:19	○
26	03:37 eta 15:59	09:37 eta 22:05	○
27	04:19 eta 16:37	10:18 eta 22:47	○
28	04:58 eta 17:12	10:55 eta 23:26	○
29	05:34 eta 17:46	11:31	○
30	06:08 eta 18:19	00:02 eta 12:02	○

## FARMAZIAK-EKAINA

### ZARAUTZ

11, 12 eta 15.	ETXEBERRIA: Gipuzkoa kalea, 17 / 943-83 23 98
7 eta 13.	ESPARZA: Santuturri plaza, 5-6 / 943-50 47 83
4, 5, 20, 24 eta 30.	GALLO: Zigorria kalea, 17 / 943-13 40 19
27.	GAMINDE: Gipuzkoa kalea, 68 / 943-12 40 19
1, 2, 8, 10, 16, 18, 19, 22 eta 28.	ITURRIA: Kale Nagusia, 12 / 943-83 29 70
3, 9, 17, 21, 23 eta 29.	LARRAÑAGA: S. Frantzisko, 16 / 943-13 38 14
6, 14, 25 eta 26.	REDONDO: Urdaneta kalea, 8 / 943-13 31 83

# AGENDA

## AIA

### EKAINAK 10, OSTIRALA

Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizuna.

*Aiako probalekuan, 18:00etan.*

### EKAINAK 11, LARUNBATA

Neomak taldearen kontzertua.

*Aiako probalekuan, 22:30etan.*

### EKAINAK 23, OSTEGUNA, SAN JOAN BEZPERA

Dantza suaren bueltan eta ondoren txokolate beroa, Guraso Elkartearen eskutik.

*Herriko Plazan, 22:00etan.*

### EKAINAREN 28TIK UZTAILAREN 3RA, SAN PEDRO JAIK ANDATZAN

#### Ekainak 28, astearta

*18:00etan*, txupinazoa festei hasiera emateko.

*21:30etan*, Mutil Ardokoen eta elkartekideen afaria auzoko elkartean.

#### Ekainak 29, asteazkena, San Pedro Eguna

*10:30etan*, meza nagusia eta ondoren hamaiketakoa.

*13:00etan*, herri kirol jaialdia.

*14:30etan*, auzoko erretiratuen bazkaria elkartean.

*17:00etan*, Herriko Pilota Txapelketa.

*22:30etan*, erromeria Izer eta Alabierrekin.

#### Ekainak 30, osteguna, Umeen Eguna.

*10:30etan*, meza nagusia.

*Ondoren*, umeentzako jolasak.

*17:00etan*, umeentzako puzgarriak ea kart pedaldunak.

*Arratsaldean*, umeentzako merendola.

#### Uztailak 1, ostirala.

*16:30etan*, oilasko biltzea baserri baserri trikitilarietara.

*21:30etan*, mus txapelketa.

#### Uztailak 2, larunbata

*14:30etan*, bertso bazkaria Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso bertsolariekin eta Saioa Lizarralde eta Maddalen Arzallus trikitilarietara.

*22:30etan*, erromeria.

#### Uztailak 3, igandea

*12:00etan*, pilota jaialdia.

*17:30etan*, Emakumezkoen Lau Arroako Harri-jasotze Txapelketako finala.

*Ondoren*, sagardo dastaketa trikitilarietara girotuta.

*22:30etan*, erromeria Ostolaza eta Narbaizarekin.

*Gau erdian*, jaiei amaiera emateko traka zaratzatsua.

#### Uztailak 16, larunbata

Oilasko biltzeko afaria elkartean.

## ORIO

### EKAINAK 4, LARUNBATA

Arantzazutik Oriora mendi ibilaldia. Parte hartzeko federatuta egon behar da.

*Orioko autobus geltokian, 04:00etan.*

### EKAINAK 14, ASTEARTEA

'Dolutik bizitzara' hitzaldia Izan Arregiren eskutik.

*Salatxo aretoan, 18:30etan.*

### EKAINAK 18, LARUNBATA

I. Eragin Eguna. Egun osoko egitaraua antolatu du Eragin eskubaloi klubak: eskubaloi partidak, trikipoteoa, bazkaria, erromeria eta jolasak. *Karela kiroldegian eta Ikastola aurreko plazan, egun osoan zehar.*

### EKAINAK 23, OSTEGUNA, SAN JOAN BEZPERA

*21:00etan*, sorginak kalejiran aterako dira herrian barrena.

*Ondoren*, dantza saioa suaren bueltan.

*Ikastola aurreko plazan, 22:00etan.*

### EKAINAREN 28TIK 30ERA, SAN PEDRO JAIK

# Puntua jarrita

Bertsolaria: Rosi Lazkano  
Doinua: Bailearen bertsoak

**1**  
**Orion hondartzara**  
**udaran joatean**

naiz bizarrak eduki  
hankan-besapean  
naizena izan nahi det  
besteen artean  
ea ez manikia  
eskaparatean.

**2**  
Inspiratzen gaituen  
koloreak jantzi  
edo kendu nahi degun  
guztia erantzi  
zer diotenak ez du  
hainbeste garrantzi  
udarak guri partez  
geuk bera irentzi.

**3**  
Eguzkian beroan  
uraren hezean  
amona eta iloba  
segi jolasean  
olatu ta helatu  
opor babesean  
uda galduko baita  
gozatu ezean.


**Hurrengo bertsolaria:**

Marian Lazkano

**Puntua:**

Bertsorik sartze al zain  
puntada tartean.

**Hasi Bertsotan atalean puntuka ariko dira bertsolariak. Oraingoan Rosi Lazkanori jarri diote puntua: "Orion hondartzara udaran joatean". Hurrengoari ere jarri dio puntua.**



SAIOA PERONA

# IZAN IRAKUR ZALE!



EGIN BAZKIDE ETA %30 EKO  
DESKONTUA IZANGO DUZU

bazkide@ukt.eus • 943-81 38 41

**KARKARA**

LAGUNTZAILEA:



Gipuzkoako Foru Alderdia

